

## EGUNEKO AHOLKUA

### HIRUGARREN AHOLKUA: NOLA AURREZTU ELEKTRIZITATEAN ETXEKO ESPAZIO BAKOITZEAN? I. ATALA

Lehenengo araua zure aparatuak "itxarote-moduan" ez uzten saiatzea da.

"Stand by" edo "itxarote-modua" delakoa ohikoa da urrutiko kontrola duten aparatuetan, hala nola telebistetan, DVDetan eta musika-kateetan. "Itxarote-moduan", aparatu itxuraz itzalita egon arren, "kontsumo fantasma" izenez ezagutzen den energia-gastua gertatzen da, hau da, aparatu piztuta dagoenean egiten den kontsumoaren % 15erainokoa. Alferreko gastu hori ekidin dezakegu, aparatuak etengailua duen entxufe anizkoitz batean entxufatuz. Gaur energia-kontsumitzaile handienari buruz hitz egingo dugu:

#### Hozkailua

Energia-kontsumoaren erregea da, 24 ordu funtzionatzen baitu urteko 365 egunetan, eta tamainak badu garrantzia (zenbat eta handiagoa izan, hainbat eta handiagoa da kontsumoa); beraz, ez da nahikoa efizientea aukeratzea, baizik eta etxearen benetako premietarako egokia den bat aukeratzea (egoiliarren kopurua eta elikagaien kontsumoa).

- Ez jarri elikagai berorik hozkailuan, utzi hozten prestatutako elikagaiak hozkailuan sartu aurretik, horrela lan gutxiago egingo du-eta. Eta ahal duzun guztietan, desizoztu elikagaiak hozkailuan. Egun hauetan aurreko egunean pentsa dezakegu zein elikagai atera izozkailutik eta lasaitasunez desizozten, hozkailuaren barruan.
- Gomendagarria da hozkailua leku fresko eta aireztatu batean egotea; garrantzitsua da bero-iturrietatik (erradiadorea, labea, berogailua, leihoa, etab.) urrun egotea; askotan, sukaldearen banaketak ez digu uzten aldatzen.
- Ez eduki hozkailuko atea luzaroan irekita.
- Kontrola ezazu erregulariki bere temperatura (+6 ° C nahikoa da hozkailu batentzat eta -18 ° C izozkailu batentzat).
- Optimiza ezazu barruko biltegitratzea, hotza behar bezala banatu dadin (barruan dauden elikagaiak ez daitezela hozkailuaren hormetan itsatsita egon).
- Hozkailua mantentzeak ere energia aurrezten du: Aprobetxa ezazu hozkailuaren atzeko parrila garbitzeko, urtean behin egin beharko litzateke-eta; desizoztu ezazu izotz-geruza kentzeko eta ateetako gomak egoera onean mantentzeko beharrezkoa denean... Hauek dira aparatuaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko hiru arauak.